Usurbilgo Udala

USURBILGO HAUR ESKOLA ZERBITZU-EMAKIDAZ KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-BALDINTZA ZEHATZEN ORRIAK. PROZEDURA IREKIA.

I.- KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuak xede hau izango du: **USURBILGO UDALEKO HAUR ESKOLAKO ZERBITZUAREN EMAKIDA** ematea, preskripzio teknikoen agian, agiri honetan eta kontratuaren esleipendun ateratzen den eskaintzan zehaztutako baldintzetan. Kontratuak lote bakarra du.

Halaber, kontratua Usurbilgo Udalak onarturiko Haur Eskolako Zerbitzu Publikoaren Erregelamenduak arautuko du.

C.P.V. kode nagusia: 80110000-8 *Eskola aurreko irakaskuntza zerbitzuak.*

2. EXEKUZIO EPEA

Prestazioa emateko epea **3 urtekoa** izango da, zerbitzua hasten den egunetik aurrera (**2021eko irailaren 1a**), eta **2 urteko** beste epe batez luzatu ahal izango da, baina iraupena guztira ez da izango **5 urte** baino luzeagoa.

Kasu guztietan, luzapena kontratazio organoak erabaki beharko du eta derrigorrezkoa izango da kontratistarentzat, betiere aurrez abisatzen bazaio, gutxienez hilabete bi lehenago kontratuaren iraupen epea amaitu baino.

Enpresa kontratatua berandutze egoeran egongo da epe hori igaroz gero, eta administrazioaren aldetik ez da beharrezkoa izango aurrez ohartaraztea.

3. KONTRATUAREN PREZIOA

Usurbilen erroldaturiko haur bakoitzeko gehienezko **prezioa** honakoa izango da (BEZ-ik gabe):

- 1.300 €/ikasleko/urteko, ikasleak 29 edo gutxiago badira.
- 1.275 €/ikasleko/urteko, ikasleak 30 - 33 bitartean (biak barne) badira.
- 1.250 €/ikasleko/urteko, ikasleak 34 - 36 bitartean (biak barne) badira.
- 1.225 €/ikasleko/urteko, ikasleak 37 - 39 bitartean (biak barne) badira.
- 1.200 €/ikasleko/urteko ikasleak 40 - 44 bitartean (biak barne) badira.
- 1.175 €/ikasleko/urteko, ikasleak 45 - 47 bitartean (biak barne) badira.
- 1.150 €/ikasleko/urteko, ikasleak 48 - 50 bitartean (biak barne) badira.
- 1.125 €/ikasleko/urteko, ikasleak 51 - 54 bitartean (biak barne) badira.
- 1.100 €/ikasleko/urteko, ikasleak 55 edo gehiago badira.

Prezioan sartuta egongo dira kontratua ematearen ondorioz sortzen diren gastu eta zerga guztiak. Usurbildarrak ez direnengatik udalak ez du ekarpenik egingo.

Haur bakoitzeko prezioak hobetu ahal izango dituzte lizitatzaileek eskaintzak aurkezteko ereduaren arabera, III. Eranskin moduan jasoa.

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua kalkulatzeko zuzeneko kostuak, zeharkako kostuak eta beste gastu batzuk hartu dira aintzat, kontratuak gehienez iraun dezakeen 5 ikasturtetan. Beraz, lizitaziorako oinarrizko aurrekontua 1.275.150 €uro litzateke.

Ikasturtea	Ikasle hipotesiak	Pertsonal kostuak	Zeharkako kostuak	Besteak	Aurrekontua guztira
2021-22	38	229.527	20.402	5.101	255.030
2022-23	38	229.527	20.402	5.101	255.030
2023-24	38	229.527	20.402	5.101	255.030
2024-25	38	229.527	20.402	5.101	255.030
2025-26	38	229.527	20.402	5.101	255.030
GUZTIRA LIZITAZIO OINARRIZKO AURREKONTUA:					1.275.150

Kontratuaren balio zenbatetsia edo estimatua kalkulatzeko zerbitzuen kontraprestazio gisa sortzen den negozio-zifra, gastu orokorrak, mozkin industriala eta emakidaren eskura jartzen diren eraikin, hornidura eta zerbitzuen balioa kalkulatu dira. Oinarriak honakoak izan dira:

- Lehenik, lan-araudiaren aplikaziotik eratorritako kostuak jaso dira.
- Jarraian beste zenbait gastu orokorren eragina jaso da.
- Kontratuak jaso behar duen mozkin industriala ere kalkulatu da.
- Kalezarko Udarregi eraikina lagatzearen balioa eta urteko amortizazioa kalkulatu dira.
- Udaleko garbiketa zerbitzuaren kostua estimatu da, garbitutako metro karratuen arabera.
- Eta Kalezarreko Udarregi eraikinaren argindar-kostuaren fakturak hartu dira kontuan.

Ikasturtea	Ikasle hipotesiak	Lan-araudien kostuak	Beste gastu orokorrak	Mozkin industriala	Eraikina lagatzea	Udal garbiketa zerbitzua	Argindarra hornitzea	Kontratu balioa guztira
2021-22	38	229.527	20.402	5.101	7.244	30.933	3.992	297.199
2022-23	38	229.527	20.402	5.101	7.244	30.933	3.992	297.199
2023-24	38	229.527	20.402	5.101	7.244	30.933	3.992	297.199
2024-25	38	229.527	20.402	5.101	7.244	30.933	3.992	297.199
2025-26	38	229.527	20.402	5.101	7.244	30.933	3.992	297.199
GUZTIRA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA:								1.485.995

Kontratuaren osotasunerako balio zenbatetsia, 2 urteko luzapena egonez gero, osagai guztiak jasorik, 1.485.995 €urokoa litzateke.

4. FINANTZAKETA

Nahiko kreditu dago aurrekontuan obligazioei erantzuteko, kontratuaren ondorioz udalak bete beharrekoak.

Halaber, organo eskudunak konpromisoa hartzen du eragina izango duten hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan aurrekontuari buruz dagozkion kredituak erreserbatzeko.

5. ZERBITZUAREN BESTE FINANTZA BIDEAK

Kontratu hau betetzearen ondorioz ordaindutako prezioaz gain, zerbitzua finantzatuko da hauen bidez: batetik, eman beharreko jardueragatik beste administrazio publiko batzuek eman ditzaketen diru laguntzak; eta, bestetik, emakidadunak hartzea zerbitzuaren erabiltzaileei udalak onartutako tarifak.

a) Erabiltzaileek ordaindutako tarifak

2021/2022 ikasturterako zerbitzuaren erabiltzaileek udal Ordenantza Fiskalen arabera ordaindu beharreko tarifak hauek izango dira (euro/hilean):

	Usurbilen erroldatuak	Usurbildik kanpo erroldatuak
Egun osoko zerbitzua	280,93	349,84
Egun osoko zerbitzua eta merienda	303,75	379,70
Egun erdiko zerbitzua	113,77	142,21
Egun erdiko zerbitzua gehi janaria	216,15	270,20
Arratsaldeko egun erdia eta merienda	93,28	152,44
Txikiak (0-6 hilabete) egun erdia eta biberoia	117,19	146,47
Txikiak (0-6 hilabete) egun osoa eta biberoia	199,15	250,28
Txikiak (0-6 hilabete) egun osoa, biberoia eta merienda	224,11	280,14

Familia bereko bi edo senide gehiagok zerbitzua jasotzen badute:

-2 anai arreba badira, 1,5 balira bezala ordaindu beharko dute.
-3 anai arreba badira, 2 balira bezala ordaindu beharko dute.
-4 edo gehiago badira, erdia ordaindu beharko dute.

Zerbitzua jasotzeko erreserban dauden haurren gurasoek ez dute janari gasturik ordaindu beharrik izango.

Ikasturtea irailaren 1etik uztailaren 30era artekoa izango da, eta abuztua ez da irakasteko edo zerbitzuko hilabetea. Zerbitzu honen erabiltzaileak 11 hilabete ordaindu behar ditu, eta araudian adierazten den legez ordainduko du.

Kontratua luzatuz gero, emakidadunak aurkeztu ahal izango du proposamen bat zerbitzuaren erabiltzaileek ordaindu beharreko tarifak berrikusteko. Tarifa horiek udalak onartu beharko ditu.

b) Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, zero eta hiru urte arteko haur-eskolen titular diren toki-korporazioei Departamentu horrekin lankidetza-hitzarmenak izenpetu ditzaten dei egingo balie, dagokion ikasturterako dirulaguntzak jaso ahal izateko Usurbilgo Udalak aipaturiko lankidetza-hitzarmena izenpetzeko eskaera gauzatuko du. Honen ondorioz, Eusko Jaurlaritzak eman dezakeen dirulaguntza emakidadunari helaraziko dio.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak dirulaguntza honi buruzko erabaki finkoa hartzen ez duen bitartean Usurbilgo udalak urte bakoitzeko azterketa ekonomi-finantzieroan aurrikusitako laguntzaren ordainketa aurreratuko dio emakidadunari. Behin erabaki finkoa ezagutzen denean dagokion kitapena egingo du udal honek eta ordainketak gauzatuko ditu.

c) Beste diru laguntzak

Beste administrazio batzuetako diru laguntzak kudeatu eta izapidetuko ditu zerbitzuaren emakidadunak, bere erantzukizunez; nolanahi ere, araudi erregulatzaileak ezarri dezake eskaera izapidetu behar duela zerbitzuaren entitate titularrak; hala denean, emakidaduna behartuta egongo da dokumentuak entregatzera garaiz eta behar bezala.

Alderantziz udalak emango ditu beharrezko dokumentuak diru laguntzak kudeatzeko garaiz eta behar bezala.

Emakidadunak kontzeptu horren truke zuzenean kobratutako kopuruak agertuko dira, edozein kasutan ere, entitatearen balantzean, erabiltzaileen tarifak ezartzeko.

Udalak kobratutako kopuruak, emakidako udal zerbitzuaren truke, igorpenduko zaizkio emakidadunari gehienez ere jaso eta hilabete batean.

Beste administrazio publiko batzuetatik jasotzea espero diren diru laguntzak lotuak daude erregulatzen dituzten araudi espezifikoetara, eta diru laguntza horiek gehiago edo gutxiago izan, ez du eragingo udal ekarpenean.

6. NOLA ORDAINDU

Zerbitzuaren prezioa ordainduko da hilabeteko faktura hurrengo hilabetearen 20a baino lehen aurkeztu eta gero. Faktura horrek 3 kontzeptu hauek jaso beharko ditu: erabiltzaileen kuotak, Eusko Jaurlaritzako diru-laguntza eta udal ekarpena.

Ordainketa zatikakoa izango da, hau da, urteko hil bakoitzaren amaieran kontratuaren prezioari dagokion 1/12a ordainduko da. Faktura hori zerbitzuaren udaleko arduradun teknikariak gainbegiratu eta kontrastatu beharko du eta, hala badagokio, organo eskudunak onartuko du.

Fakturak onartuta, haiek ordainduko dira legezko epeetan, xedatutakoak 198. artikuluan, azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuena.

Enpresa kontratistak faktura aurkeztuko du formatu elektronikoan, Gipuzkoako Fakturen Sarrera Puntu orokorraren bidez (FSPOe) (https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua), udal aurrekontuaren exekuzio arauan ezarritakoaren arabera, 25/2013 Legea, abenduaren 27koa, betetzeko, bultzatzen duena faktura elektronikoa eta sortzen duena fakturen kontabilitate erregistroa sektore publikoan.

Unitate organikoen DIR3 kodeak:

Usurbilgo Udala:

- Organo kudeatzailea: L01200739
- Unitate tramitatzailea: L01200739
- Kontabilitate bulegoa: L01200739

7. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Kontratuak zer ezaugarri dituen kontuan izanik ez dagokio prezioak berraztertzea.

8. BERMEAK

Behin-behineko bermea: Ez da eskatzen.

Behin-betiko bermea:

Kontratuaren adjudikazioduna, bere gain hartutako obligazioak beteko dituela bermatzeko, behartuta dago behin betiko bermea jartzen, adjudikazioaren zenbatekoaren % 5ekoa, BEZ barik.

Kontratuaren enpresa adjudikaziodunaren proposamen ekonomikoa kontsideratuz gero hasiera batean ez normaltzat edo neurriz kanpokoa, geroago onartu dadin, aurreko bermeaz gain berme osagarri bat jarri beharko du, adjudikazio zenbatekoaren % 5ekoa; hortaz, bermea guztira izango da kontratuaren prezioaren % 10.

Epea, berme hori jartzeko, 10 egun baliodunekoa izango da, eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileak errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera, eta jarri ahal izango da azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuena, 108. artikuluan ezarritako edozein bide erabiliz, eskudirutan jarritakoak izan ezik, horiek Usurbilgo Udalaren edozein kontu korrontetan sartu behar dira eta.

Berme osoa edo, hala badagokio, zati bat itzuli behar bada, egingo da Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 111. artikuluan xedatutakoaren arabera, bermearen epea bukatutakoan eta adjudikaziodunak betetzen dituenean kontratuaren obligazio guztiak.

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

9.- LIZITAZIOAREN PROZEDURA ETA PUBLIZITATEA

Kontratu hau prozedura ireki elektronikoaren bidez adjudikatuko da, SPKLn ezarritakoari jarraituz; lege horretan eta bera garatzeko arauetan ezarritako jardunei jarraituko zaie adjudikazioa izapidetzean.

Lizitazio honen iragarkia Usurbilgo Udaleko kontratugilearen profilean argitaratuko da (www.usurbil.eus), Euskadiko kontratazio-plataformaren bidez.

10.- ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Honako irizpide hauek kontuan hartuko dira esleipena erabakitzeko:

a) IRIZPIDE AUTOMATIKOAK: gehienez 51 puntu (C artxibo elektronikoa, III. Eranskina)

1.- Eskaintza ekonomikoa, haur usurbildar bakoitzeko prezioen jeitsiera: gehienez 26 puntu

Haur usurbildar bakoitzeko gehienezko prezioak (BEZ-ik gabe) plegu administratibo hauetako 3. klausulan zehaztutakoak izango dira. Haur kopuruaren araberako prezio ezberdinak

daudenez, puntuak ezartzea modu honetara egingo da: lizitatzaileak 38 ikasleko prezioagatiko eskaintza egin beharko du (gehienezko lizitazio prezioa: 1.225 euro). Prezio hori eskaintzen duenak 0 puntu izango ditu.

Puntu gehien prezio merkeena eskaintzen duen proposamenari emango zaizkio eta gainontzeko proposamenen puntuazioa ateratzen da formula honetatik: prezio merkeena duen eskaintzaren eta baloratzen den lizitatzailearen eskaintzaren arteko zatidura bider irizpideari aplikatu dakizkiokeen puntuen kopuru osoa, ateratzen den emaitza. Hau da,

Lp= Et/Le x 26

Non-eta:

Lp: lizitatzailearen puntuazioa
Et: eskaintzarik txikiena
Le: lizitatzailearen eskaintza

Behin kontratuaren esleipena buruturik, esleipendunak 38 ikasleko prezioan aplikaturiko jeitsiera portzentai berdina aplikatuko zaizkie plegu hauetan jasotako 3. klausulako gainerako prezioei ere, kontratuan esleipeneko prezio berriak jasoz.

2.- Enplegatu guztiei Lan Hitzarmen berdina aplikatzea: gehienez 10 puntu

Haur Eskola zerbitzuan bere baitan eskulanaren garrantzia eta langileen egonkortasun eta lan baldintza egokiek zerbitzuaren kalitatean zuzenki eragiten dutela kontuan izanda eta kontratu honen bidez enplegu egonkor eta kalitatezkoaren sustapena bultzatu nahirik, langile guztiek lan baldintza duin eta berdinak izan ditzaten, klausula sozial gisa enpresak bere kasuan egon daitezkeen langile berriei ere subrogazio eskubidea duten langileen lan hitzarmen berdina (plegu administratibo hauetako II. Eranskina) aplikatzea baloratuko da, horretarako konpromezua hartuz gero 10 puntu eskuratuz.

3.- Sukalde eta jangelako zerbitzu propioa eskaintzea: gehienez 10 puntu

Haur Eskolako zerbitzuaren baitan sukalde eta jangela zerbitzu propioa edukitzeak dakartzan onura nabarmenak kontuan harturik, lizitatzaileak sukalde eta jangela zerbitzu propioa eskeiniz gero 10 puntu emango zaizkio.

4.- Sukalde eta jangelako zerbitzuan produktu ekologikoak ematea: gehienez 3 puntu
Haur Eskolako zerbitzua jasotzen duten haurren elikaduran duen garrantzia baloratuz, sukalde eta jangela zerbitzuan emango diren elikagaiak etiketa ekologikoa izatea puntuatuko da 3 puntu emanez.

5.- Zerbitzuaren ordutegia hobetzea: gehienez 2 puntu

Luzapen ordu erdi batek puntu bat emango du, luzapen ordu bete batek aldiz 2 puntu.

b) IRIZPIDE EZ AUTOMATIKOAK: gehienez 49 puntu (B artxibo elektronikoa)

Proiektu bat aurkeztu beharko da eta honek gutxienez 20 puntu eskuratu beharko ditu. Proiektuak jarraian finkatutako egitura jarraitu beharko du eta gehienez ere 15 orri (30 orrialde) izango ditu. Zerbitzuaren pedagogia eta asistentzia proiektua:

- Lortu nahi diren helburu pedagokikoak, eginkizunak eta metodologia (gehienez 19 puntu)
- Giza-baliabideen antolaketa eta funtzioak (gehienez 15 puntu)
- Bitarteko materialen aurreikuspena (gehienez 5 puntu)
- Udala eta gurasoekiko komunikazioa eta koordinazioa (gehienez ere 5 puntu)
- Udalerriaren errealitatea ezagutzea: baliabideak, ekipamenduak eta errealitatea deskribatzea (gehienez 5 puntu)

OHARRA: Adi! B artxibo honetan ezin da C artxiboan jaso behar den informaziorik aipatu, hau da, proiektuan ezin da honakoen inguruko aipamenik egin: prezioa, langile berrien lan hitzarmena, sukalde propioa den edo ez, otordu ekologikoak diren edo ez eta ordutegi arrunta zabaltzen den edo ez.

11.- PARTE HARTZEKO GAITASUNA

Lizitazio honetan parte hartu ahal izango dute gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna duten eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa duten pertsona natural edo juridiko guztiek baldin eta Sektore Publikoko Kontratuen Legea onesten duen, azaroak 9ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan zehaztutako kontratatzeko debekuen kasuren baten barnean ez badaude.

Kontratu honen lizitazioan abantaila gehien dituen eskaintza aurkezten duen eskaintzaileak bere kaudimen ekonomikoa finantzieroa eta teknikoa egiaztatu beharko du plegu honetan adierazten den moduan.

Enpresari batzuk lizitazioan batera parte hartzeko interesatuta daudenean, aldi baterako enpresa elkartea sortu ahal izango dute horretarako. Hori eskritura publikoan formalizatu beharrik ez da izango, harik eta esleipena bere alde egiten den arte. Kasu horretan, enpresariak solidarioki behartuta egongo dira Administrazioaren aurrean, eta elkartearen ordezkari edo apoderatu bakarra izendatu beharko dute, eta horrek kontratutik eratortzen diren eskubideak gauzatzeko eta obligazioak betetzeko adinako ahalmenak izango ditu, kontratua amaitzen den arte.

12.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Kontratazio honen espedientea, bai eta horrekin batera doazen agiri teknikoak ere, honako leku, ordutegi eta epean aztertu ahal izango dira: udal honetako Idazkaritzan (Joxe Martin Sagardia plaza, z/g) 8:00etatik 14:30etara lanegunetan, lizitazioaren iragarkia Usurbilgo Udaleko Kontratatzailearen Profilean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera 31 egun naturaleko epean (arratsaldeko 17:00ak arte).

Baldintza-agiriak eta agiri osagarriak kontratatzailearen profilean izango dira eskuragarri. Euskadiko Kontratazio Publikoko kontratatzailearen profilera honako lotura honetatik sar daiteke: http://www.contratacion.euskadi.eus. Usurbilgo Udaleko KONTRATATZAILEAREN PROFILA Eusko Jaurlaritzako kontratazio-sisteman sartuta dagoen arren, ondorengo helbidetik ere sar daiteke sistema horretara: http://www.usurbil.eus/eu/kontratatzailearen-profila.

Proposamenak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira, lizitazioaren iragarkia Usurbilgo Udaleko Kontratatzailearen Profilean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera 31 egun naturaleko epean (arratsaldeko 17:00ak arte).

Baldintza-agiriei edo dokumentazio osagarriei buruzko informazio osagarria eskatzen badute lizitatzaileek, informazio hori emango zaie proposamenak aurkezteko ezarritako epea bukatu baino sei egun lehenago, baldin eta eskaera proposamenak aurkezteko epea bukatu baino hamabi egun lehenago egiten bada, gutxienez.

13.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO ERA

Prozeduran parte hartzeko eskatutako dokumentazioa eta dagozkion proposamenak artxibo edo gutun-azal elektronikoetan aurkeztuko dira, honako aplikazio honen bidez: LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO SISTEMA; eta sistema hori hemen kokatuta dago: KONTRATAZIO PUBLIKOA EUSKADIN / PLATAFORMA CONTRATACIÓN PÚBLICA EN EUSKADI SISTEMA DE LICITACIÓN ELECTRÓNICA.

Proposamenak elektronikoki aurkezteko beharrezko informazioa eta zehaztapen teknikoak, zifratzea eta dataren baliozkotzea barne, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman jasota daude (www. contratacion.euskadi.eus).

Helbide elektronikoa: laguntzakpe@euskadi.eus

Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo gertakariak konpontzeko zerbitzua: 945016298 (7:45etik 20:00etara).
Proposamenak gutun-azal hauetan aurkeztuko dira:

A GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA: AURRETIAZKO BALDINTZAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEKO DOKUMENTAZIOA

Aurretiazko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioaren gutun-azalean lizitatzaileek honako agiri hauek sartuko dituzte:

1.- Erantzukizunpeko adierazpena, Kontrataziora-ko Agiri Europar Bakarra (KAEB) ereduaren arabera, plegu honekin batera doana I. Eranskin gisa.

Bestela, nahi izanez gero, Kontrataziorako Europar Dokumentu Bakarra (DEUC). DEUCen formulario normalizatua ere eskuragarri dago web orri honetan era elektronikoan betetzeko: https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es.

Lizitatzaileek posta elektronikoko helbide bat adieraziko dute, jakinarazpen edo komunikazio elektronikoak egin direlako oharrak jasotzeko.

Hala ere, enpresaria Sektore Publikoko Lizitatzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan edo horren baliokidea den erregistro autonomikoan izena emanda badago, SPKLren 341. artikuluan aurreikusitako irismenarekin, edo Europar Erkidegoko estatukide baten datu-base nazionalen batean ageri bada, agiriak elektronikoki biltegiratzeko sistema edo aurrez kalifikatzeko sistema gisa, eta organo horiek agiri horietara doako sarbidea badute; ez da beharrezkoa izango leku horietan jasotako datuen egiaztagiriak aurkeztea.

Enpresariak beste enpresa batzuen kaudimena edo bitartekoak erabiltzen baditu, Legearen 75. artikuluarekin bat, beste enpresa horiek ere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, kasu horietarako beharrezko informazioa jasotzen duena, Europako kontratazio agiri bakarrarekin bat .

Hainbat enpresari aldi baterako enpresa-elkartea osatuz aurkezten direnean, parte hartzen duten enpresa guztiek erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko dute, eta kasu horietarako Europako kontratazio agiri bakarrean eskatzen den informazioa jasoko dute adierazpenean.

2.-Hainbat enpresari aldi baterako enpresa-elkarte batean bilduta aurkezten badira, aldi baterako enpresa-elkartea osatzeko konpromisoa aurkeztu beharko dute, SPKLren 69. artikuluaren 3. atalean eskatzen denarekin bat; eta elkarte horren iraupena, gutxienez, kontratua iraungi artekoa izango da.

Konpromisoa adierazteko idatzian honako hauek jasoko dira: elkartea osatzen dutenen izenak eta zirkunstantziak; horietako bakoitzaren parte-hartzea; eta kontratua esleitzen bazaie, formalki aldi baterako elkartea eratzeko konpromisoa. Agiri hori elkartea osatzen duten enpresa guztien ordezkariek sinatu beharko dute.

3.- Europar Batasuneko beste estatu batzuetako edo Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu duten beste estatu batzuetako enpresak badira, eta kontratua Espainian gauzatzekoa bada, beste adierazpen hau ere aurkeztu beharko dute: kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortutako gorabehera guztietarako, Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren menpe jartzen direla jakinarazteko adierazpena, eta lizitatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzioko foruari uko egiten diotela adierazteko, kasua hori balitz.

4.- Europar Erkidegotik kanpoko enpresak badira, SPKLren 68.1. artikuluan araututako txostena aurkeztu beharko dute. Halaber, kontratua Espainian gauzatzekoa bada, kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortutako gorabehera guztietarako, Espainiako maila guztietako epaitegi eta

auzitegien jurisdikzioaren menpe jartzen direla jakinarazteko adierazpena, eta enpresari legokiokeen atzerriko jurisdikzioko foruari uko egiten diotela adierazteko, kasua hori balitz.

B GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA: IRIZPIDE EZ AUTOMATIKOAK

Baldintza-agiri honen 10.b) klausulan adierazitako irizpideei buruzko agiria jasoko du: Zerbitzuaren pedagogia eta asistentzia proiektua edo memoria.

OHARRA: Adi! B artxibo honetan ezin da C artxiboan jaso behar den informaziorik aipatu, hau da, proiektuan ezin da honakoen inguruko aipamenik egin: prezioa, langile berrien lan hitzarmena, sukalde propioa den edo ez, otordu ekologikoak diren edo ez eta ordutegi arrunta zabaltzen den edo ez.

C GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA: IRIZPIDE AUTOMATIKOAK

Baldintza-agiri honen 10.a) klausulan adierazitako irizpideei buruzko informazioa jasoko du, plegu hauetako III. Eranskina behar bezala betez.

14.- AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA IREKITZEA, LANTZEA ETA ENPRESAK HAUTATZEA.

Proposamenak aurkezteko epea bukatu ondoren, ondorengo jarduketak egingo dira:

1.- “A” GUTUN-AZALA IREKITZEA.

A kartazala aztertuko da, aurretiazko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko. Beharrezkoa izanez gero, mahaiak gehienez ere 3 egun naturaleko epea eskainiko du akatsak zuzentzeko.

2.- “B” GUTUN-AZALA IREKITZEA.

A gutun-azaleko agiriak baloratu ondoren, B gutun-azala irekiko da kontratatzailearen profilean adierazten diren egun eta orduan, eta jendaurrean streaming bidez eskainiko da plataformaren bidez. Lizitazioa streaming-en emango den esteka:

- Euskaraz: https://apps.euskadi.eus/appcont/lizitazioa/directo_usurbil_eu.html
- Gaztelaniaz: https://apps.euskadi.eus/appcont/lizitazioa/directo_usurbil_es.html

B gutun-azala ireki ondoren, Kontratazio Mahaiak B gutun-azalean aurkeztutako dokumentazioa helaraziko dio hori baloratzeko ardura duen teknikariari, eta horrek balorazio-txostena egin beharko du C gutun-azala ireki aurretik.

3.- “C” GUTUN-AZALA IREKITZEA.

B gutun-azaleko agiriak baloratu ondoren jakinaraziko da iritzi-balioetan oinarritutako irizpideengatik eskaintza bakoitzari emandako puntuazioa. Ondoren C gutun-azala irekiko da kontratatzailearen profilean adierazten diren egun eta orduan, eta jendaurrean streaming bidez eskainiko da plataformaren bidez. Lizitazioa streaming-en emango den esteka:

- Euskaraz: https://apps.euskadi.eus/appcont/lizitazioa/directo_usurbil_eu.html
- Gaztelaniaz: https://apps.euskadi.eus/appcont/lizitazioa/directo_usurbil_es.html

15.- KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio Mahai Iraunkorreko kide hauek osatuko dute:

1. Agurtzane Solaberrieta Mesa, Alkatea, Mahaiko Lehendakaria
2. Itziar Basterrika Unanue, Hezkuntza saileko Zinegotzia, Bokala
3. Garazi Etxeberria San Miguel, Udal Idazkaria, Bokala
4. Xabier Olano Jauregi, Udal Kontu-hartzailea, Bokala
5. Josune Mujika Tolaretxipi, Garapen eta Hezkuntza saileko burua, Bokala
6. Olatz De Miguel Arnaiz, Kontratazio eta Pertsonal Teknikaria, Mahaiko Idazkaria

16.- ESKAINTZA ONENA IZENDATZEA, KONTRATUA ESLEITZEA ETA ESLEIPENA JAKINARAZTEA

1.- Eskaintzak baloratu eta sailkatutakoan, Kontratazio mahaiak Kontratazio organoari bidaliko dio dagokion eskaintza onenaren izendapen proposamena. Hartan beheranzko hurrenkeran antolatuak agertuko dira eskaintzak, esleipen irizpideak aplikatuta haietako bakoitzari emandako puntuazioa barne, eta kalitate-prezioa erlazio hoberena duen eskaintza bereizita.

2.- Eskaintza onena erabaki ondoren, errekerimendua bidez egingo zaio SPKLren 145 artikuluaren ezarritakoaren arabera eskaintza hoberena aurkeztu duen lizitatzaileari, hamar egun balioduneko epean, errekerimendua jaso ondorengo egunetik kontatuta, ondorengo dokumentazioa aurkez dezan:

a) Lizitatzailearen nortasuna egiaztatzeko dokumentuak:

- Lizitatzailea pertsona juridikoa bada, nortasuna Osaera, edo hala badagokio, aldaketa eskritura bidez egiaztatuko da. Bestela, osaera dokumentua, estatutuak edo sortze ekintza aurkeztu beharko du jarduera arautzen duten arauak jasota, dagokion Erregistro Ofizialean inskribatua, hala behar izanez gero, eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

- Lizitatzailea pertsona fisikoa bada, Nortasun Agiri Nazionala edo baliokide den dokumentuaren bitartez.

b) Eskaintzaren sinatzailearen ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentazioa (pertsona horrek beste pertsona fisiko edo juridiko baten izenean jarduten duenean): Nortasun Agiri Nazionala eta ahalordetze eskritura.

c) Erantzunkizuneko adierazpena, kontratatzeko debekuetako batean ez dagoela sartuta (SPKL 71. art.)

d) Zerga eta Gizarte Segurantzako obligazioak betetzen dituela egiaztatzen duten justifikazio dokumentuak, baldintza hauek aurretik egiaztatuta geratu ez badira.

e) Eskaintzak aurkezteko fasean egindako adierazpenaren arabera kontratatzeko daukan kaudimen ekonomikoa eta teknikoa egiaztatzeko honako dokumentazioa aurkeztuz:

- **Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa**: Hezkuntza eremuan negozioen urteko bolumena, azkeneko hiru urteetako bolumen handieneko urteari dagokiona, gutxienez 100.000 €.

- **Kaudimen teknikoa**:

* Azkeneko hiru urteetan eginiko haur eskolako zerbitzuen zerrenda (0-3 urte, haur hezkuntzako lehen zikloa), zenbatekoa, datak eta horiek norentzako egin diren, publiko edo pribatuarentzako, aipatuz. Egindako zerbitzuak edo lanak egiaztatuko dira organo eskudunak emandako ziurtagirien bitartez, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean; hartzailea subjektu pribatua denean, honek egindako ziurtagiri baten bitartez edo, ziurtagiri horren faltan, enpresariak eginiko aitorpenaren bitartez. Gutxieneko baldintza izango da haur eskolako hezkuntza zerbitzua objektutzat duen eta urteko gutxienez 45.000 euroko fakturazioa duen zerbitzu bat burutu izana.

* Langileen baldintzak:
  - Titulazioa**:** plegu teknikoetako 5. atalean finkaturikoa
  - Langile guztiek:
    - Sexu Delitugileen Erregistro Zentraletik ziurtagiri negatiboa izatea.
    - Euskarazko C1 maila

f) Dagokion bermearen aurkezpena.

g) Aktibitatearen baitan haurrek jasan lezaketen edozein motatako istripu edo gertakari kaltekorri aurre egiteko, esleipendunak Haur Eskolaren zerbitzua bere hedadura osoan estaliko duen Erantzukizun Zibileko Asegurua itundu beharko du entitate aseguratzaileren batekin, gutxienez 1.000.000 euroko estaldura duena (kalte pertsonaleko estaldura gutxienez 600.000 euro). Aipatu erantzukizun zibileko aseguruak, haurren gaineko kalteez gain, aktibitatea antolatzearen ondorioz gerta litekeen beste edonolako kalte, narriadura eta galera kalte-ordainez estaltzeko adinakoa izan beharko du.

3.- Errekerimendua adierazitako epean behar bezala bete ezean, ulertuko da lizitatzaileak kendu egin duela bere eskaintza; kasu horretan, lizitazioko oinarrizko aurrekontuaren %3 ari dagokion zenbatekoa (BEZa kanpo) exijituko zaio zehapen modura. Kasu horretan dokumentazio bera eskatuko zaio eskaintzak sailkatuta geratu diren ordenaren araberako hurrengo lizitatzaileari.

4.- Bermea jarri eta aipatutako dokumentazioa jaso ondoren kontratazio-organoak kontratua

esleituko du.

5.- Esleipena motibatua izango da, izangai edo lizitatzaileei jakinaraziko zaie plataformaren bidez eta, aldi berean, Usurbilgo Udalaren kontratugilearen profilean argitaratuko da (www.usurbil.eus).

Jakinarazpenean eta kontratugilearen profilean, Sektore Publikoko Kontratuen, azaroaren 8ko, 9/2017 Legearen 153.3 artikuluaren arabera zein epetan formalizatu behar den adieraziko da.

17.- KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA

Kontratua dokumentu administratiboan formalizatu beharko da, esleipenaren jakinarazpena lizitatzaileei eta izangaiei bidali ondorengo hamabost egun baliodunen barruan. Nahikoa titulu izango da agiri hori, edozein erregistro publikotara sartzeko. Hala ere, kontratistak kontratua eskritura publiko bihurtzea eskatu ahal izango du, eta bere kargura izango dira horri dagozkion gastuak. Formalizatu ondoren osatzen da kontratua.

Kontratua formalizatu ondoren, Usurbilgo Udaleko kontratugilearen profilean (www.usurbil.eus) argitaratuko da.

18.- KONTRATUA EGIKARITZEA

1.- Kontratista behartuta dago kontratua betetzera lanak egiteko finkatuta dagoen epe barruan, baita, bere kasuan, zehaztu diren zatiko epeak. Kontratista berandutzeak ez du Administrazioaren aldetik aurrez abisatu beharra ekarriko. Kontratista, berari egoztekoak diren arrazoiak tarteko, epea bere osotasunean betetzerakoan berandutu egin bada, Administrazioak kontratua suntsitzeko edo Sektore Publikoko Kontratuen Legea onesten duen, azaroak 9ko 9/2017 Legearen 193. artikuluan aurreikusitako zigorrak jartzeko erabakia hartu ahal izango du.

2.- Kontratistak kontratua bere “arrisku eta kontura” onartzen duela ulertuko da, testu bereko 197. artikuluaren arabera.

19.- KLAUSULA SOZIALA, ENPRESA KONTRATISTEK BETE BEHARREKO GUTXIENEKO LAN-BALDINTZEI BURUZKOA

1.- Kontratu honek bete beharko ditu indarrean dauden legezko, erregelamenduzko eta hitzarmenezko hainbat xedapen, betiere lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan aplikatzekoak badira.

2.- Lizitatzaileek adierazi beharko dute, esleipena jasoz gero, kontratuaren xede den jardueran arituko diren langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa.

Halaber, eskatzen den informazio guztia ematera behartuta egongo dira, behin kontratua esleitu eta gero, langileei benetan aplikatuko zaizkien lan-baldintzei buruz.

3.- Esleipendunak hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du, kontratua gauzatzen den denbora guztian, betiere langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera, eta ordaintzekoa den soldata ezin izango da, inola ere, soldata hura baino txikiagoa izan.

4.- Klausula honetan ezarritako betebeharrak kontratua gauzatzeko baldintza berezi gisa hartuko dira, eta ez-betetzeak kontratua suntsitzea ekar dezake.

5.- Enpresa kontratistari, eta berari bakarrik, dagokio pertsonala hautatzea kontratua gauzatzeko adskribitutako lan taldea osatzeko, klausulen agiri honetan exijitutako titulazio eta ukanbeharrekin. Edonola ere, entitate kontratatzaileak baldintza horiek betetzen dituela egiaztatzeko ahalmena izango du.

Enpresa kontratugilea ahaleginduko da bere lan taldean egonkortasunari eusten eta taldearen osaketan aldaketarik badago haiek puntualak eta justifikatutako arrazoiengatik izaten, zerbitzuaren funtzionamendu egokiak ez dezan aldaketarik pairatu. Edozein kasutan, beti entitate kontratatzaileari horren berri eman beharko dio.

Enpresa kontratistak bere gain hartzen du betebehar bezala, enpresari orori dagokion zuzendaritza ahalmena modu erreal, eraginkor eta etengabean baliatzeko, kontratuaren exekuzioaz arduratzen den lan taldeko pertsonalaren gainean. Bereziki, honako hauek hartuko ditu bere gain: soldaten negoziaketa eta ordainketa, baimenak, lizentziak eta oporrak ematea, ordezkapenak langileen baja edo ez egoteengatik, Gizarte Segurantzako lege betebeharrak, kotizazio eta prestazio ordainketak barne, hala dagokionean, lan arriskuen prebentzioaren alorreko legezko betebeharrak, diziplina ahalaz baliatzea eta, oro har, enplegatuaren eta enplegatzailearen arteko kontratu loturak dakartzan eskubide eta betebehar guztiak.

Kontratista behartuta dago lan arloan indarrean dauden legezko xedapenak betetzen, Gizarte Segurantzakoak eta laneko segurtasun eta higienekoak, kontratu honetako zerbitzuetan erabiltzen dituen langileei buruz, eta Administrazioa dago hori bete ez izatearen erantzukizunetik salbuetsita. Usurbilgo Udalak ez du inongo lan-harremanik izango zerbitzuan lanean ari diren langileekiko.

20. ALDAERAK EDO ALTERNATIBAK

Ez dira onartuko.

III.- KONTRATUA EXEKUTATZEA

21. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratua exekutatzearen arduraduna, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koa, Sektore Publikoaren Kontratuena, 62. artikuluan aurreikusitako funtzioekin, Enplegu, Garapen eta Hezkuntza Teknikaria izango da.

22. KONTRATUA EXEKUTATZEA

Kontratua exekutatuko da enpresa kontratatuaren arriskuz eta zoriz.

Kontratua exekutatzeko, bete beharko dira agiri honetan jasota dauden baldintzak eta, hala badagokio, espedienteari batutako xehetasun teknikoak, administrazioak zuzenduta, ikuskatuta eta kontrolatuta, zeinak ahalmen horiek erabiliko dituen idatziz nahiz ahoz.

Kontratua ondo ez doanean kontratistak edo haren mendeko pertsonek egintza batzuk egiteagatik edo ez egiteagatik ezer, administrazioak agindu ahal izango du beharrezko jotzen dituen neurriak hartzeko, kontratua egoki eta behar bezala bete dadin.

23. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA, KONTRATUA BETETZEAN HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK.

Enpresa kontratuak bere gain hartuko ditu kalteak edo galerak, sortzen bada halakorik kontratua exekutatzean egindako lanen ondorioz, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 196. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hartarako, Erantzunkizun Zibileko aseguru poliza baten kopia ekarriko du, gutxieneko berme muga 1.000.000 eurokoa eta biktima bakoitzeko azpimuga 600.000 eurokoa, eta baita hura ordaindu izanaren egiaztagiria ere, kontratuari datxezkion arriskuak estaltzeko eta bereziki kalteengatik izan dezakeen erantzukizun zibilarena, beste batzuei sortutako kalteengatik eta adjudikaziodunaren langileen egintzez , haren mendeko iraunkor eta noizean behingoen egintzez, erabiltzen dituzten makinen eta tresnen makinek sortu ditzaketenengatik, eta baita adjudikazioko zerbitzua ematean egindako lanen ondorioz sortutakoengatik ere.

24. NORBERAREN DATUAK

Eskubide Digitalen Bermerako eta Datuak Babesteko Lege Organikora 3/2018 abenduaren 5ekoa errespetatzea, kontratu honen xede diren lanak burutzearen ondorioz esleipendunak udalaren titularitateko fitxategietan dauden kutsu pertsonaleko datuak lortu beharra izango balu. Halaber, 2016ko apirilaren 27ko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europar Batasuneko 2016/679 Erregelamenduaren eraginez. Azkenik, esleipendunak Usurbilgo Udalarekin Izaera Pertsonaleko Datuen Tratamendurako Hitzarmen bat sinatu beharko du kontratua egoki gauzatzeko.

25. KONTRATUA ALDATZEA

Administrazioak kontratua aldatu ahal izango du, interes publikoko arrazoiengatik, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 203. eta ondorengo artikuluetan aurreikusitako kasuetan eta eran.

26. ONARTZEA ETA BERME EPEA

Kontratuaren xede den prestazioa bukatu eta gehienez 15 eguneko epean, egingo da kontratuaren onarpen ekintza formala eta positiboa, zerbitzuaren behin betiko txostena ematerakoan beteko dena.

Era berean, HILABETEKO epea ezarri da, onarpen formala egiten den egunetik aurrera, zeina ezarri den berme gisa, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Lege horren Erregelamendu Orokorrean xedatutakoen ondorioetarako.

Berme epe horretan, kontratista izango da akats eta bizioen arduraduna, halakorik agertzen bada egindako lan eta prestazioetan.

Epe hori igarotzen bada administrazioak ezelako eragozpenik jarri barik, kontratistaren erantzukizuna amaitu egingo da.

27. PENALITATEAK ENPRESA KONTRATISTARI, KONTRATUA EZ BETETZEAGATIK

A) KONTRATUAREN EXEKUZIO EPEAK

Baldin eta enpresa kontratatua berandu ibili bada kontratuaren exekuzio epea betetzeko orduan, enpresari berari egotzi dakizkion kausengatik, bai epe osoari dagokionez bai, hala badagokio, epe partzialei dagokienez, administrazioak aukera egin ahal izango du, aintzat hartuta kasuaren egoerengatik, kontratua amaitzeko, bermea galduz, edo penalitateak ezarriz.

Berandu ibiltzeagatik penalitateak iristen diren bakoitzean kontratuaren prezioaren ehuneko 5en multiplo batera, Kontratazio organoak ahalmena izango du kontratua amaitzeko edo kontratuaren exekuzioarekin jarraitzea erabakitzeko, penalitate berriak ezarrita.

B) PRESTAZIOEN EXEKUZIO PARTZIALARI BURUZ EDO PRESTAZIOAK AKATSEZ BETETZEARI BURUZ

Baldin eta enpresa kontratatuak, berari egotzi dakizkion kausengatik, ez badu betetzen kontratuan definitutako prestazioen exekuzio partziala edo prestazioak akatsez betetzen baditu, administrazioak aukera egin ahal izango du era berean kontratua amaitzeko, eta bermea galduko du, edo penalitateak ezarriz, eta horiekin batera kalte-ordaina, sortutako kalte eta galerengatik.

C) KONTRATUAREN BALDINTZA BEREZIAK EZ BETETZEA

Baldin eta enpresa kontratatuak, berari egotzi dakizkion kausengatik, ez baditu betetzen kontratuaren baldintza bereziak, administrazioak aukera egin ahal izango du era berean kontratua amaitzeko, eta bermea galduko du, edo eguneroko penalitateak ezartzeko, kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko 1 euroko proportzioan, eta horiekin batera kalte-ordaina, sortutako kalte eta galerengatik.

28. ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

Emakidadunek egindako hutsegiteak honela santzionatuko dira:

- Hutsegite arinak santzionatuko dira 20tik 150 euroko isunaz. Emakida iraungi/hautsiko da 15 hutsegite arin eginez gero urte batean.

- Hutsegite larria santzionatuko dira 150etik 300 euroko isunaz. Emakida iraungi/hautsiko da 10 hutsegite eginez gero urte batean.

- Hutsegite oso larriak santzionatuko dira 301etik 450 euro artean, eta behin betiko bermea galtzea, emakidaduna beharturik berme berri bat zenbateko berdinekoa, edo kontratua hautsiko da, hutsegite oso astuntzat kalifikatutako b) eta c) hutsegiteak izanez gero.

Santzioez gain, emakidadunak udalari ordaindu beharko dio kalte-ordain bat, egin ez den zerbitzuaz, aplikatu ez diren bitartekoez, eta abarrez egiten den balorazioaren zenbatekoaren truke.

Ezarritako isunen zenbatekoa kenduko da zerbitzua ordaintzeko egiten diren hileko ziurtagiriak ordaintzean, edo bermetik.

a HUTSEGITE ARINAK

Hutsegite arinak izango dira:

a.- Emakidaduna atzeratzen bada bere eginbeharrak bete behar dituenean.

b.- Desobedientzia arinak izaten baditu udalak emandako jarraibideetan.

c.- Akats arinak egitea zerbitzua ematean, establezimenduaren apainketan, lokalak eta tresnak garbi izatean eta instalazioak eta altzariak erabiltzean.

d.- Erabiltzaileei zor zaien errespeturik eta arretarik ez izatea.

e.- Atzeratzea edo enpresari egotzi dakiokeen akatsa egitea eskatutako datuak eta azterlanak ematean.

f.- Zerbitzuan aldaketen komunikazio falta, hainbat arrazoirengatik gertatu daitezkeenak.

g.- Atzeratuta ibiltzea udalak emandako aginduak betetzeko, betiere berandu ibiltze hori ez bada

24 ordu gorakoa; hala bada, hutsegitea kontsideratuko da hutsegite astun.

h.- Erabiltzaileekin gizalegez ez jokatzea.

b HUTSEGITE LARRIAK

Hutsegite larriak izango dira:

a.- Behin eta berriro egitea hutsegite arinak.

b.- Enpresak zabarkeriaz jokatzea bere langileen portaera kontrolatzeko, bai erabiltzaileei dagokionez, bai udal araudia zorrotz betetzean, eta bereziki kontratu hau erregulatzen dutenak, hala nola akatsak egitea tarifa kobratzean, eta abar.

c.- Emakidadunaren jardunak eraikinaren balio galera ekartzen duenean.

d.- Emandako zerbitzu publikoa behar bezala erabiltzen ez denean.

e.- Jarduera bat egitea zerbitzuan, emakida horrek xedetzat ez duena.

f.- Jartzen den ordutegia ez betetzea.

g.- Emakidadunaren oinarrizko betebeharren arau hauste astuna.

h.- Kontratuan aipatzen diren lanak geldiarazi edo etetea hiru egunean, ezinbesteko arrazoirik ez badago.

i.- Baimendutakoak baino prezio handiagoak jasotzea.

j.- Emakidadunak ez betetzea gainerako edozein baldintza, aipatuak agirietan edo bere eskaintzan, eta bereziki ez betetzea emakidadunaren obligazioak, aurreikusiak 10. klausulan, tipifikatu gabe hutsegite arin edo oso astun agiri honetan.

c HUTSEGITE OSO LARRIAK

Hutsegite oso larriak izango dira:

a.- Ez hastea kontratatutako zerbitzuak ematen agiri honetan ezarritako epean, ezinbesteko kausen ondorioz ez bada.

b.- Geldiaraztea edo ez ematea kontratatutako zerbitzuak hiru egunetik gora, ezinbesteko kausen ondorioz ez bada.

c.- Zerbitzua ematea eraginez pertsonen segurtasunari, haientzat arrisku larria eta zuzenekoa izan daiteke eta.

d.- Uko egitea edo trabak jartzea ikuskatze, zerbitzuen jarduerari, legez edo arauz dituzten funtzioak betetzea galarazten dutenak.

e.- Zerbitzu publikoa egitea titulazio barik edo lanbide trebakuntza barik.

f.- Zerbitzua bertan behera uztea edo gelditzea, emakida epea bukatu barik egonda, Administrazioaren baimen barik.

g.- Zerbitzuari atxikitako materialak jartzea kontratatutako zerbitzu publikorako ez diren helburuetarako, edozein modalitate edo titulupean, udalaren baimen barik.

h.- Hutsegite larriak behin eta berriro egitea.

29.- KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

1.- Prezio kopurua hartzeko eskubidea arau hauetara egokituko da:

a) Emakidadunari ordainduko zaizkio, hitzartutako prezioen arabera, benetan egiten dituen lanak, preskripzio teknikoen agiriari lotuta eta haren aldaketetara, behar bezala baimenduak, jasotzat eman ahala Usurbilgo Udalak fakturak, egiten diren lanei dagozkienak.

b) Kontzesionarioak ez du eskubiderik izango borondatez egindako berrikuntza edo hobekuntzak ordain dakizkion, nahiz eta onuragarria izan Administrazioarentzat.

Erreklamaziorik ere ez zaio onartuko aurrekontuetan ez datozen lanak eginez gero, baldin eta kontratazio organoaren baimenik gabe egin baditu, legez eskatzen diren formalitateei jarraituz.

Kasu batean ere ez du kontzesionarioak eskubiderik izango egindako lanak kobratzeko, paragrafo honetan eta aurrekoan xedatutakoaren kontra jardunez gero.

c) Ordaintzeko, Usurbilgo Udalaren dagokion zerbitzuak ordainduko du, hartarako dagoen araudiak ezarritako epeetan.

Konturako ordainketa egokiaren kontzeptua izango dute egindako ordainketek, eta lotuta egongo dira zerbitzuaren arduradun diren udal teknikariek egin ditzaketen txostenen ondorioz egiten diren zuzenketa eta aldaketei.

2.- Horretaz gain Kontzesionarioak eskubidea izango du Udalak onartutako tarifak erabiltzaileei kobratzeko, eta haiek berraztertzeko proposamenak aurkezteko ere.

3.- Jarduera dela-eta beste herri administrazio batzuk ematen dituzten diru laguntzak kobratzeko eskubidea ere izango du.

4.- Orri honetan jasotzen direnez gain eta ordezko arauak aplikatzetik gertatzen direnez gain, hauek dira kontzesionarioaren betebehar bereziak:

a) Kontratuaren helburua eta kontratuan ezarritako mugak errespetatzea, eta uneoro bermatuko da hura behar bezala betearaziko dela.

b) Udalbatzarrak emandako jarraibideak betetzea, eta udal agintaritzari eta haren agente edo funtzionario aginpidedunei zerbitzuaren ustiatzea ikuskatzen utziko die.

c) Zerbitzua abian jartzeko behar diren elementu osagarriak bere kabuz erostea.

d) Pertsonala nahiz zerbitzuari adskribatutako eraikinak eta altzariak jartzea Usurbilgo zerbitzurako bakarrik, udalak agindu edo baimentzen dituen kasuetan izan ezik.

e) Preskripzio teknikoen orrian aurreikusitako eran kontratatutako lanak burutzea.

f) Hamabost eguneko epean, izan litezkeen ezintasunak eta bateraezintasunak jakinaraztea.

g) Informatzea Udalari plantillan edozein aldaketa egiteko, dela zerbitzuan beharrak daudelako, dela jubilatu, hil, borondatez baja hartu, lanetik bota, aldi batez, iraunkortasunez ezindu delako, oporrak, e.a.

h) Egoera onean mantentzea eta zaintzea altzariak eta beste material batzuk, hala nola zerbitzura adskribatutako eraikinak.

i) Usurbilgo Udalaren aginduz zerbitzua aldatzea hartzea beregain, indarrean dagoen legeriak adierazitako baldintzetan.

j) Lizitazioak eta kontratuak sortzen dituen tributu guztiak, estatukoak eta herrikoak, ordaintzea (tasak, kontribuzioak eta zergak).

k) Eskatzen zaion guztietan ematea informazioa diru bilketaz, erabiltzaile kopuruaz, gorabeherez, e.a.

l) Zerbitzuaren Araudia errespetatu eta errespetaraztea.

30. UDALAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

1.- Kontzesionarioaren kudeaketaren fiskalizazioa, eta horren eraginerako, behar diren aginduak emango dizkio kontzesionarioari Usurbilgo Udalaren dagokion zerbitzuak, ohi denez eta behar bezala eman dezan zerbitzua, kontratuan datozen klausulen arabera, eta kontuan harturik batzordeburuak edo berak delegatzen duen pertsonak zuzentzeko eta ikuskatzeko ahalmenak izango dituztela.

2.- Erabiltzaileek ordaindu beharreko tarifak onartu eta kontrolatzea, eta haiek berraztertzea ere bai.

3.- Kontzesionarioari kobratzea dagozkion kopuruak ordaintzeari buruz, araudian ezarritako epeetan ordainduko ditu Udalak.

Bete ezean, kontzesionarioak eskubidea izango du berandutza interesa jasotzeko, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koa, Sektore Publikoaren Kontratuenak 198. artikuluan adierazitakoaren arabera.

4.- Orri honetan datozen gainerakoak, eta ezartzeko arauditik sortzen direnak ere.

31. AZPIKONTRATATZEA

Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 215. artikuluan ezarritakoaren arabera, enpresa adjudikaziodunak kontratuaren zati hau ezin izango du inolaz ere azpikontratatu edo besteren batekin gauzatu: hezkuntza zerbitzua propioki.

32. KONTRATUA LAGATZEA

Kontratua laga ahal izango da 9/2017 Legeak, azaroaren 8koa, Sektore Publikoaren Kontratuena, 214. artikuluan jasotako mugekin eta baldintzekin.

33. ARRAZOIAK KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO

Hona hemen zer arrazoi dagoen kontratua suntsitzeko, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 211 eta 294. artikuluetan ezarritakoaz gain:

a) Betebeharrak ez betetzea, adierazitakoak baldintza teknikoen agirian.

b) Teknikoki adjudikaziodunari ezinezkoa zaiola lehiaketako xede diren lanak betetzea.

Kontratua suntsituko da, bermea galduta edo galdu barik, kontuan izanik alde batak zein besteak zuzenbidez kalte-ordainak ere izan ditzakeela.

34. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

Administrazioari dagozkio prerrogatibak kontratua interpretatzeko, kontratua betetzetik sortzen diren zalantzak argitzea, aldatzea onura publikoko arrazoiengatik, erabakitzea kontratua suntsiaraztea eta haren ondorioak zehaztea, betiere muga batzuen barruan eta Sektore Publikoaren Kontratuen Legean eta haren Erregelamendu Orokorrean ezarritako baldintzei eta ondorioei lotuta.

35. HIZKUNTZA BALDINTZAK

Hizkuntza-gaitasunari buruz:

Usurbilgo Udalarekin eta hirugarrenekin harremana izango duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek Usurbilgo Udalak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez; horregatik, eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan izanik, Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila egiaztatu beharko dute jardueran parte hartuko duten begiraleek.

Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonek badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna.

Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko honako bi bideak erabili ahal izango dira:
a) Zerbitzua eman behar du(t)en pertsonak/ek eskatutako hizkuntza gaitasuna dauka(te)la ziurtatzen duen agiria aurkeztea edo,
b) Usurbilgo Udalak erabakitako froga egitea.

Zerbitzu hizkuntza erabiltzaile eta herritarrekin

Kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriak kontuan hartuta, zerbitzu hizkuntza euskara izango da.

Usurbilgo Udalak onartutako hizkuntza-irizpideei jarraituz, zerbitzuaren erabiltzaile eta gainerako herritarrekin ahozko harremana (lehen hitza, telefonoz, erantzungailuan, aurrez aurrekoan, bozgorailutik, bileretan…) euskaraz egingo da.

Modu berean, era guztietako jakinarazpen eta komunikazio idatziak (inprimakiak, oharrak, abisuak, ordutegiak, fakturak eta salerosketako bestelako agiriak…) euskaraz egingo dira eta, behar izanez gero, euskaraz eta gaztelaniaz, euskarazkoari lehentasuna emanez.

Hala ere, kasu guztietan herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dira.

Hizkuntza paisaia

Errotuluak, oharrak, seinaleak, kartelak eta gisa bereko komunikazio orokorrak euskaraz egingo dira.

Harremanak administrazioarekin

Enpresa adjudikazio-hartzaileak Usurbilgo Udalaren hizkuntz araudiaren arabera jokatuko du, kontratuaren xede diren jarduera guztietan; eta beraz, enpresak Udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz izango dira.

Jarraipena

Hizkuntza-baldintzen betetze mailaren jarraipena: Usurbilgo Udaleko Hezkuntza sailak egingo du finkatutako hizkuntza baldintzen betetzearen jarraipena.

IV.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

36. IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratuak, agiri hauetan oinarrituta egonez gero, izaera administratiboa izango du, eta kontratuan xedatzen ez den guztian jarraituko zaio arau hauetan xedatzen denari: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoaren Kontratuena, 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, zati batean garatzen duena 30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoaren Kontratuena, baita ere, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra, onartua 1098/2001 Errege Dekretuak, urriaren 12koa, eta gainerako arauak, hala badagokio, aplikatzekoak zaizkionak administrazio publikoen kontratazioari.

Kontraesanik izanez gero administrazio klausula berezien, agiri honen eta espedienteari lotuta gainerako dokumentazio teknikoaren artean, nagusituko da agiri honetan zehaztutakoa.

37. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratutik sortzen diren auziak administrazioarekiko auzietako jurisdikzioaren menpe egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak konpondu daitezke arbitrajearen bitartez, indarrean dagoen legedian xedatutakoarekin bat.

Usurbilgo Udala

I. ERANSKINA ("A" artxibo elektronikoan)
ARDURAPEKO ADIERAZPENA (DEUC agiria)

_____, zeinak jakinarazpenak jasotzeko helbidea hemen duen: _____, _____, ___zk., eta IFZ _____, _____ enpresaren, IFK IFZ _____ ordezkari gisa,

BERE ERANTZUKIZUNPEAN ADIERAZTEN DU:

LEHENA. *Usurbilgo udaleko haur eskolako zerbitzuaren emakidaren kontratazioan parte hartu nahi duela.*

BIGARRENA. *Kontratu honen esleipendun izateko azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeko 140. artikuluaren lehenengo atala betetzen duela, are zehatzago:*

- ❑ *Izaera juridikoa duela eta, dagokionean, ordezkaritzakoa.*
- ❑ *Dagokionean, enpresa behar bezala sailkatuta dagoela edo kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionaleko baldintzak betetzen dituela.*
- ❑ *Kontratatzeko debekaturik ez duela, 9/2017 Legearen 71. Artikuluan, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, bildutakoaren arabera, eta indarrean dauden xedapenek inposatutako zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak betetzen dituela.*
- ❑ *Espainiako Epaitegi eta Auzitegien Jurisdikzioaren mende dagoela, zuzenean edo zeharka kontratutik sor daitezkeen arazo guztientzat eta, uko egingo zaiola, edozein kasutan ere, lizitatzaileari dagokion atzerriko edozein foruri.*
- ❑ *Hurrengoa dela jakinarazpenak bidaltzeko erabiliko den helbide elektronikoa: _____ .*

LAUGARRENA. *Adierazpen honetan eskatzen diren dokumentu guztiak indarrean dituela egiaztatzeko konpromisoa duela, eta kontratua esleitzen bazaio, edo eskatzen zaionean aurkeztu ahal izango dituela.*

BOSGARRENA. *Esleipendun gisa proposatua izatekotan, Usurbilgo Udalari BAIMENA EMATEN DIOT zergetako (Foru Ogasunari) eta Gizarte Segurantzari dagozkion obligazioak betetzen dituen kontsulta dezan eta helburu horretarako beharrezko informazioa lor dezan. Kasu honetan ez da beharrezkoa izango dokumentalki egiaztatzea.*

(*) Inolako aukerarik ez markatzekotan, ulertuko da datuen kontsulta EZ dela baimentzen.

- *Bai,*
- *Ez.*

Eta hala ager dadin, adierazpena sinatzen dut.

II. ERANSKINA

-Subrogatzeko eskubidea duten langileak eta aplikatzen zaizkien lan baldintzak-

Usurbilgo Udala

III. ERANSKINA (C artxibo elektronikoan sartzeko)

IRIZPIDE AUTOMATIKOEN PROPOSAMENA

Honako eredu honen arabera aurkeztuko da:

Izenabizenak.....Helbidea .... Posta kodea ……., NAN zenbakia ....., Telefonoa ....., Ordezkariaren datuak (ordezkaririk egonez gero): Izen-abizenak ..... NAN edo IFK zenbakia (pertsona fisiko edo juridikoa denaren arabera), ***USURBILGO UDALEKO HAUR ESKOLAKO ZERBITZUAREN EMAKIDA*** *prozedura irekiko espedientea ezaguturik, adierazten dut kontratuaren oinarri diren Pleguak ezagutzen ditudala eta osoki onartzen ditudala, lizitazioan parte hartuz eta honako hau aitortuz:*

- Ordezkatzen duen enpresak bere irekiera, instalazio eta funtzionamendurako indarrean dagoen araudiak ezarritako baldintza eta betebehar guztiak betetzen dituela.

- Bere gain hartzen duela kontratua gauzatzeko konpromisoa ondorengo prezioan (eta jeitsiera portzentai berdina aplikatuko zaiela gainerako kopuruagatiko prezioei ere):

- 38 ikasleko prezioa:..... euro (BEZ-ik gabe)

- Plegu administratibo hauetako II. Eranskinean subrogazio eskubidea duten langileen lan hitzarmen berdina aplikatuko diet egon daitezkeen langile berriei: bai / ez (zehaztu).

- Sukalde eta jangela zerbitzu propioa ematea: bai / ez (zehaztu).

- Sukalde eta jangelako zerbitzuan produktu ekologikoak ematea: bai / ez (zehaztu).

- Zerbitzuaren ordutegia hobetzea: ez / ordu erdi bat / ordu bat (zehaztu).

....., 2021eko ..... aren ....(a)

Sinadura